

ZABALKETA 02 KOADERNOA:

PARTE-HARTZEZKO INGURUMEN ARLOKO GOBERNANTZA BOLIVIAN

Zabalketa Elkartek, Instituto de Capacitación del Oriente (ICO) eta Boliviako Valles Cruceños eskualdeko **nekazarien komunitateetako** herritarrek diagnostiko bat egitea erabaki zuten eskualde horretan garapen jasangarriko izaten ari ziren arazoaren aurrean, arazo horiek eragiten zituzten arrazoiak sakontzeko. Azterlan horren arabera, azken 30 urteotan eskualdean aplikatzen ari ziren nekazaritzako eta abeltzaintzako ereduaren ondorioz, lurraldeko natura baliabideak agortzen ari dira arian-arian. Ingurumenaren narriadura hori egungo herritarren bizi baldintzetan eragina izaten ari da eta, gainera, etorkizuneko belaunaldien ongizatea zalantzan jartzen du.

Horregatik, **garapenerako lankidetzako programa** bat abiaraztea erabaki zuten, honelako estrategiekin:

1. ARROEN KUDEAKETA KOMUNALA

Komunitateen garapen sozial eta ekonomikorako natura baliabiderik garrantzitsuenak izaki, ura lortzeko aukerak arriskuan zeuden, batik bat, udako hilabeteetan. Uraren kudeaketan inbertsioa egitea ezinbestekoa zen, ur gehiago izateko, kutsadura murrizteko eta erabilera arduratsuagoa sustatzeko.

Arroen kudeaketa komunala zera da, **iturburuak babestea eta arro hidrografikoaren lurraldean nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak antolatzea**. Horretarako, lehenik, zutabez eta alanbrez osatutako hesiak jarri ziren iturburuen inguruan. Hartara, animalien gorozkiek eragindako kutsadura saihesten da eta landaredia mardulago hazi daiteke; horri esker, euri ura errazago iragazten da lurpera eta iturburuak betetzen dira. Gainera, iturburuen gertuko tokietan lurzoruen erabilera antolatu zen, lurzoruen gaitasunaren eta narriadura mailaren arabera. Esaterako, lur oso kalteberetan ingurumena gehiago zaintzen duten produkzioko jarduerak ezarri ziren, hala nola erlezaintza edo frutagintza.

Boliviako Baso Legean, horrelako eremu babestuak eta modu jasangarrian ustiatzen direnak **Natura Ondarearen Erreserba (REPANA)** izendatzen dira.



Ura eskuratzeko aukerak hobetuta emakumeek esleitutako etxeko lanak arintzen zaizkie

REPANA izendatzen diren eremuak **jabetza komunalera** igarotzen dira, eta lurrak lagatzeaz gain, eraginpeko lursailen jabeekin akordioak egin behar izaten dira. Jabeek, trukean, konpentsazio txikiak jasotzen dituzte produktibitatea hobetzera bideratuta (esate baterako, aziendarentzako edalekuak egiteko laguntzak, bazkaleku hobetuak, urteko laboreen ordez labore iraunkorrak jartzea eta abar).

Ordura arte, familia bakoitzak bere ur premiak asetzeko ahaleginak egiten zituen, ahal zuen moduan (euri ura bidotetan edo biltegi txikietan gordeta, edo ur gordailuak eginda lurra zulatuz), baina lanerako estrategia horrek pentsamoldea aldatzea dakar herritarren aldetik, inplikatu egin behar baitute **uraren erabilera eraginkorrean eta babesean, komunitate osoaren mesedetan**.

2. ERAKUNDE KOMUNALAK INDARTUTA

Komunitateetako **Ur Batzordeei** dagokie REPANA guneak babestea eta ura hartzeko sistemak zaintzea, ongi funtzionatzen dutela ziurtatzea eta mantentze-lanak egitea. Batzordeetan emakumeek eta gizonek



parte hartzen dute, eta batzarrean bilduta, Batzorde bakoitzak kuota bat adostu du, familia erabiltzaile guztiek ordaintzeko modukoa, ura biltzeko, gordetzeko eta bideratzeko ezarri diren sistemen mantentze-lanetako kostua ordaindu ahal izateko.

Halaber, erakunde moduan hobeto funtzionatze aldera, Batzordeei **estatutuak eta araudiak egiten** lagundu diegu, kide bakoitzak jakin dezan zeintzuk diren dagozkion betebeharrak eta eginkizunak.

3. LIDERGOA KOMUNITATEETAN

ICO eta Zabalketaren jarduna Valles Cruceños eskualdeko emakumeen eta gizonen **gaitasunak garatzera** ere bideratu da. **Liderren Eskola** sortu da, eta 2009. urtetik 2019. urtera bitarte, guztira, 250 emakumek eta 230 gizonek jaso dute prestakuntza; komunitateko gainerako kideek hautatutako gizon eta emakumeak izan dira, lidergorako gaitasuna eta espirtua zutelako.

Kudeaketa Publikoa ingurumenaren ikuspegitik begiratuta moduluan, Konstituzioaren arabera eskubide eta betebeharren gaineko ezagutza eman da, herritartasuna baliatzeko funtsezkoa den aldetik; halaber, ingurumenari eta jasangarritasun ekologikoari buruzko ezagutza ere eman da, lurzorua, ura eta basoak egoki kudeatzearren. Prestakuntza horri esker, proiektuak prestatzen dituzte eta udaletako nahiz eskualdeetako gobernuetan aurkezten dituzte, komunitateen eskaerak eta interesak kontuan har ditzaten eta ingurumena babesteko eta zaintzeko politikak egin daitezzen.

Bestalde, **Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Teknologia Jasangarriari** buruzko prestakuntzan, familiek nekazaritza ekologikoaren teknikak eta ureztatze sistema eraginkorrak erabiltzeko teknikak (ihintzadura bidez, tantaka, gordailu bidez eta abar) ikasi dituzte, produkzioa jasangarritasun irizpideei jarraikiz areagotze aldera. Ondoren, ikasitakoa labore soroetan aplikatu ahal izan dute, eta gainerako familia nekazarientzat eredu bihurtu dira. Ikasitakoa komunitateko gainerako kideei irakatsiz gero, produkzio eredu berria lurralde osoan barrena hedatzea lortzen da. Hartara, nekazaritzako jardunbideetan, alde batetik, komunitateetan urteztatuak **antzinako ezagutzak** eta, bestetik, **jardunbide modernoagoak** uztartzen dira.





Emakumezko liderrek elkarteak sortu dituzte beren ekimenak gauzatzeko

Prestakuntzamodulu horretan, abeltzaintzan hobetzeko trebetasunak ere irakasten dira. Artzaintzarako eremu naturalak modu kontrolatuagoan ustiatzen ikasi dute, baita bazka espezie hobetuak landatzen ere; hartara, animalien elikadura nutritiboagoa da eta jarduera horrek ingurunean duen inpaktua murrizten da.

Liderren Eskolan, **lidergoa baliatzeko trebetasun, jarrera eta balioak** ere ikasi dituzte ikasleek; horri esker, orain, komunitateetan erabakiak hartzeko prozesuak parte-hartzean oinarritzen dira eta elkartasunaren, justizia sozialaren, errespetuaren eta genero berdintasunaren balioak zabaldu dira.

Liderren gaitasunak indartuta eta **genero berdintasuneko sentsibilizazioaren** bitartez lortutako lorpen garrantzitsu bat da emakumeak izendatzen hasi direla komunitateko zuzendaritzako karguetarako, baita tokiko gobernuetako zinegotzi izateko ere. Horrela, bada, emakumeek eginkizun aktiboagoa lortu dute beren komunitateen eta beren udalerraren garapenean.

4. GIZARTEA ETA GOBERNUA ELKARREKIN LANEAN

Zabalketak eta ICOK egindako lanaren geroko faseetan, **parte-hartzean oinarritutako ingurumen gobernantza** indartzeari eman zaio garrantzia. Ingurumena eta natura baliabideak kudeatzeaz arduratzen da, **lurraldearekin elkarrenergaiten duten pertsonen eta taldeen (erakundeak, gobernuak) artean akordioak** eginez. Zentzu horretan, tokiko gobernuak, komunitateetako zuzendaritzekin eta gizarte zibilarekin batera, natura baliabideak kudeatzeko

prozesuaren etapa guztietan parte hartzen du, hau da, garapen jasangarria ahalbidetzen duten tresna eta politiken diseinuan, plangintzan, gauzatzen eta ebaluazioan. **Gobernuaren eta gizartearen arteko erantzunkidetasunetik** abiatuta baino ez daiteke lortu lurraldeko natura baliabideen kudeaketa benetan jasangarria bermatzea.

Gobernatzailleen eta gizarte zibilaren **parte-hartze aktibo** hori indartzeko, hainbat jarduera egin dira; esate baterako:

- **Ingurumen Hezkuntzako diploma:** bigarren hezkuntzako irakasleei zuzenduta dago, hezkuntzaren edukietan ingurumen ikuspegia txertatzen laguntzeko helburua du, eta metodologia aktiboak eta parte-hartzean oinarritzen direnak erabiltzen ditu.
- **Informazioa eskuratzeko aukera hobetzea, eta topaguneak eta batera lan egiteko guneak sortzea** erakunde publikoen, pribatuen, ikastetxeen, ordezkari komunalen, emakumeen erakundeen eta gizarte zibileko beste talde batzuen artean. Gune horietan, natura baliabideen kalteberatasun egoeraren berri eman da, eta egoerari aurre egiteko konponbideak proposatu dira.
- **Ingurumena Kudeatzeko Planak diseinatzea komunitatean, eskualdean eta udalerrian,** plangintzarako tresnatzat hartuta, lurraldearen ingurumen kudeaketa bideratzen dutenak parte hartzean oinarritutako prozesuen bitartez eta gizon nahiz emakumeen ikuspegiak aintzat hartuta. Plan horietan, lan ildo bakoitzean lehentasunak finkatu eta ezarri beharreko ekintzak zehazten dira (ura, hondakinak, basoak, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eta abar), eta batzuk besteekin egituratzen dira lurralde osoaren ingurumen kudeaketaren ikuspegi orokorretik begiratuta.
- Ingurumen eskubideei buruzko **sentsibilizazio kanpainak:** horretarako, irratia, ikus-entzunezko spot-ak eta prentsako artikulatuak erabiltzen dira; eta ikasleak buru diren **ingurumena leheneratzeko ekintzei** laguntzea.





GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Agenda 2030eko Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) laneko nazioarteko esparrua aintzat hartuta, Zabalketaren eta ICOren garapenerako lankidetzako proiektuak lagungarri izan dira Valles Cruceños eskualdean hainbat GIHtan aurrera egiteko; hona hemen helburu nabarmenenak:

1. GIH: gaitasunak garatu eta nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzio eredu jasangarriagoa eta iraunkorragoa aldatuta, familia nekazarien ahulezia ekonomikoa murrizten da.

4. GIH: ingurumen hezkuntzari buruz emandako prestakuntzari esker, herritarrek ezagutza teoriko eta praktikoak eskuratu ahal izan dituzte bizimodu jasangarriagoa izateko.

5. GIH: emakumeen lidergoa eta ahalduzkoa gero eta gehiago ikusten da. Erabakiguneetan aktiboki parte hartzen dute, euren gaitasunekiko konfiantza gero eta handiagoa dutela, eta komunitateko eta herriko zuzendaritzako kargu garrantzitsuak betetzen hasi dira.

6. GIH: uraren kudeaketa komunalak uraren erabilera arduratsua eta herritar guztien artean modu orekatuagoan banatzea ahalbidetzen ditu. Gainera, OAA edo ura administratzeko erakundeak uraz hornitzeko azpiegituraren funtzionamendua egokia dela bermatzen du.

12. GIH eta 13. GIH: nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzioan jardunbide jasangarriagoak lurzoruen narriadura eta emankortasunaren galera saihesten dute, eta klima-aldaketaren aurreko kalteberatasuna murrizten laguntzen dute.

15. GIH: nekazaritzako lurzoruen higaduraren aurkako neurriak, laboreak eta frutarbolak uztartzea, eta iturburu inguruetako landarediaren estaldura leheneratzea lagungarri dira lurreko ekosistemen kontserbaziorako.

17. GIH: komunitateen eta udal gobernuen arteko koordinazioa eta partekatutako helburuak finkatzea gakoak dira, Valles Cruceños eskualdearen garapen sozioekonomikoan aurrerapen irmoak lortzeko.



*“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko” (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkarteak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.*

Egileak: Asociación Zabalketa

Argazkiak: Zabalketa e Instituto de Capacitación del Oriente

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina

D.L. SS-691-2019

Zabalketa eta ICLIn webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz:

www.zabalketa.org www.icli.info

